

# Nafarkaria

• ostirala • 1998ko apirilaren 3a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Elizondo** • Mariano Izetari omendia egingen zaio Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finalean.

**Marcos Andres Vierge** • «Rematxaren lana ez dugu nahikoa estimatzen».



## Auzo guztia oholtza gainean

XIX. mendean zehar Zandua izandakoan gertatuakoak biltzen dituen muntaia eskainiko dute Sanduzelaiko berrehun bat lagunek, bihar, Kasedako enparantzan. Iragana eta oraina, liburuetan idatzitakoa oholtzaren gainean jarriz.





Elizondo •

# Izeta, bertsoaritzaren historia bizia

Igandeko Bertsolari Txapelketaren finalean, omenaldia egingo zaio Mariano Izetari

**Duela 62 urte jokatu zen lehen aldikoz Nafarroako Bertsolari Txapelketa Elizondoko Antxitonea trinketean.**



Egun, Nafarroako Bertsozaleen Elkarteko lehendakaria da Mariano Izeta. • ARTXIBOKOA

**A**URTEN, HAINBAT JIRA-BIRA EGIN eta gero, berriro ere Elizondo izan da finalerako aukeratutako herria. Eta hogeita zazpi alditan jokatu den txapelketa honek izan duen testigurik zuzen eta fidelena Mariano Izeta dugu, inolako zalantzarik gabe.

1936. urtean, Nafarroako Bertsolari Txapelketa lehenengo aldiz egin zenean, Marianok, 20 urte zituela, antolaketa lanetan hartu zuen parte. Geroztik, hogeita zazpi aldiz jokatu da txapelketa, eta epe horretan bi etenaldi luze ezagutu ditu. Aipagarriena, gerra zitala tarteko, 1936tik 1961era bitartekoa. Bestea, 1967tik 78ra-koa izan zen. Txapelketa hauetan guztietan, partaidetza zuzena izan du Marianok: antolatzaile, epaimahaiko, eta azken urteotan finalerako protokoloan, Nafarroako Bertsozale Elkartearen lehendakaria den aldetik.

1915ean Elizondon sortua da Mariano Izeta. Hainbat lan egin du euskara eta euskal kulturaren alde. Lagun handia zuen Maurizio Elizalderekin batera, euskal dantzaren suspertzaile eta irakasle,

euskal jaialdien eratzaille, hainbat egunkari, aldizkari eta irratiaren berriemaile, bi nobela eta hiztegi baten idazle...

Gaztetan ikasketa handirik bereganatzeko aukerarik izan ez bazuen ere (mutil koskorra zela aitarekin hasi baitzen erlojulari lanetan), poliki-poliki baina etenik gabe, bere burua lantzen joan den autodidaktaren paradigma da. Lan xume hori, ordea, handi bilakatu da, hain epe luzean gogoz eta maitasunez egindako lanak fruituak ematea ezinbestekoa baita. «1957. urtean hasi nintzen ni idazten», dio Marianok. «Orduan libertate pixka bat etorri zen eta liburu batzuk ere hasi ziren euskaraz agertzen. Haiek irakurriz, eta nire kasa, eman nion nik idazteari».

Urtetan aitzina joanda gero ere, erraztasun berezia izan du Marianok bera baino mende erdi bat gazteagoko jendearekin lan egiteko. Bere lankide eta bidelagunak goraiatzeko ere ez du inolako erreparorik: «Hemen Nafarroan, garai hartako aitzindaria Pedro Diez de Ultzurrun genuen. Hark piztuarazi zuen euskal kultura Nafarroan... Hark egin zituen hark lanak euskararendako! Nafarroako bertso txapelketan ere bera genuen aitzindari. Bere ondoan ibiltzen ginen gainerakoak...».

1960ko hamarkadan, bertsolaritzarentzako herririk kuttunetakoena bihurtu zen Elizondo, handik pasarazi baitzuten Marianok, hainbat urtez, garaiko bertsolari-rik ezagunenak. «Saioa antolatze-ko, tranpa ere egiten genuen. Pa-

retetan programak jartzen genituen, bertsolarien izenak, eguna eta ordua aipatuz, eta behean jartzen genuen bertso besta hori Nafarroako Diputazioaren Principe de Viana erakundeak antolatzen zuela. Horregatik ez zuten kasurik egiten, nahiz eta guk inori baimenik ez eskatu.»

Mariano, euskararen egungo egoeraren aurrean, ez da oso ezkor. «Sekulan ez naiz desanimatu euskararen alde eta euskaraz hitz egiten. Ni Elizondon sortua naiz,

eta herria ongi ezagutzen dut. Azkeneko gerra karlistaz geroztik, euskaraz gutti egin izan da hemen, beti herri eralduna izan baita, baina horregatik ez dugu haserretu behar. Nik beti erloju denda honetan lan egin izan dut, eta denda honetara klase guztietako jendea etorri izan da: ezkerrekoak, eskuindarrak, baina euskaraz baldin badakite, nirekin euskaraz mintzatzen dira, nahiz eta gero haien artean erdaraz aritu. Nik beti garbi izan du euskaraz egin behar nuela, eta niregana etorri den jendeak hori ulertu du. Nik errespetu handia izan diot beti euskarari. Ez da gauza handia, baina nik hori egin izan dut beti.»

Gauza handia da hori, hagitz handia, Mariano. Hizkuntza barentzako hori da, seguruenik, gauzarik garrantzitsuenetakoa.

→ Patxi Larretxea

Baztan

Xorroxin irratiaren aldeko kanpaina

Xorroxin Irratiak «Euskalduna hitza, bertakoa bihotza» lelopean Lesakako irrati lizentzia eskuratzeko kanpaina jarri du abian. Eskualde guztiko hainbat herritan bertako taldeekin eta kanpotik etorritako zenbaitekin, kontzertuak antolatu ditu, han hemen, Lesakako lizentziak Xorroxinentzat izan behar duela aldarrikatzeko. Kanpaina gaur bertan hasiko da Etxalarko eskola zaharretan gaueko 10etan eginen den kontzertuarekin. Berako *Borrokan* taldeak joko du, eta sarrera debaldetako izanen da. Bihar, larunbata, Igantziko Biltokin Berako *Zup* taldeak hartuko du txanda. Hitzordua, baina, 11etan izanen da. Hurrengo asteetan, Lesakan (*Marruma* taldeak hilaren 17an Arranon joko du), Beran (biharomanean Espidobaitan *Larrua Truk* arituko da), Iturenen (24ean Herriko Etxean *Pottoka* eta *Petti*), eta Arantzian (*Pottoka* eta *Petti* Ekaitzan) izanen dira kontzertuak. Azken ekitaldia Erratzun eginen da, maiatzaren 2an larunbarekin, eta bertan izanen dira *Zup*, *Borrokan*, *Petti* eta *Gutari-ko bat* talde beratarrik, *Pottoka* baztandarra, *Radici nel cemento* eta *Cargols*. Arratsaldeko 8:30etan hasiko da kontzertua eta sarrera 800 pezeta kostako da alde aurretik erosiz gero (ohiko tokietan salgai), eta 1000 pezeta egunean bertan erosten bada.

→ Jon Abril

denbora pasa

XAMAR



**A**gur eta ohore pelikula handi (*Titanic*, *L.A. Confidential...*) edota «txiki» (*Secretos del corazón*) egiten dutenei. Agur bizitzaren pasarte batean murgilarazten gaituztenei bi orenez, ohore istorioren batean gauaren interesa pizten dutenei. Biba ziek. Betiere ezin ikusi dugu gisa berean istorio urruna ala hurbila (denboran, bizipenetan, paisaian, herrian...). Hala izanik, hurbileko istorio baten ikustera beldur nize beti joaten; urrunekotan anitzez aixago sarrarazten-enganatzen ahal gaituzte, ezontzen ditugunetan ez, bistan da. Oraiko hontan berdin izan zen. Armendarizenean alegia, eta ene izialdurak

## ‘Secrets of my heart’

bazuen funtsa, berriz ere. Xakin badakit holandesa debru hoiek ez balute *Academy* erosi eta yanki ergelek zine espainiolar ezondu izan balute, dagoeneko Oscar bat Nafarroan ginuela (to, nazionalistak ez direnaki), eta badakit ere jende orori zaiola laketa izan, alta, enetako sobera istorio hurbila nuen: paisaiez, lurrez, denboraz... Haurraren istorio pertsonala arront ongi lorturik dago, baina paisaiak huts du egiten, ez baitzen holakorik 50-60etako mugaldea, Zaraitzu, Mendiak, etxeak, autobusak, jantziak... ongi dira, hizkuntzak aldiz... Pertsonaia nagusien erdera (erdera izanik ere) ez zen (eta ez da) pelikulan aditzen

dena, eta nagusien artean Euskaraz pixkerrin bat ezin zen entzun? Bai, badakit ez zela gaia, baina bazterrean (non bertzela?) bedere ele zenbeit? Oino ere denbora hartan, eta berantago ere, bazuen tokia bertako mintzaerak hango bazterretan (bere erran nahi guzietan). Bistan dena da, dagoen bezala arrotz batek egina dela dirudi, alta egileak bere burua vascoztat dauka, eta, pelikula egin aintzin, ibilirik zegoen mendi haietan barna dokumentazio bila. Beharrik. *Secrets of my heart* zuen izenbururik egokiena, yanki hoiek eman zakotena hain zuzen.





urdairen  
mintzoa

Xabier Larraburu

### Just in time

Sindikatuaren manifestazioak joan nintzen kontramanifa bakarti bat egiteko asmoarekin. Sarasateko pasealekuan hogeita mila lagun haien erdian zegoen banku batera igo eta horrela esan nien:

«Gau hontan amets bat izan dut. Eta ametsan kapitalistak eta langileak elkarri ematen zioten eskua produkzioa haundiatu behar zela adostu ondoren.

Kapitalistak Txinari buruz hitz egiten zuten. Txina Mendillorri ikaragarri bat zela aipatzen zuten barrezka, merkatu izugarri haundi bat, hango falmiliek ez bi balzik eta ezta kotxe bakar bat ere ez zutela esaten zion langileari. Gero egunero hamar mila auto ateratzen ziren fabrikaren atzekaldekik eta abiadura haundiko trenean iparraldeko portu batean zain zegoen ontzira eramaten zituzten inongo pausarik egin gabe, just in time. Azken autoa kargatu bezain laister ontzia itsasora abiatzen zen, Gibraltar, Suez, Yemen eta oraintxe gogoratzen ez ditudan beste izen batzuk atzetik uzten zituela, just in time. Azkenean Txinako lurretan zeuden bi portuetan autoak deskargatzen zituen ontziak.

Ametsan txinatar kamioiek eta trenak zakur gosetien antzera banatzen zituzten autoak eta tripa beteta mendi muinoetatik haruntzago zeuden hirietarantz desagertzen ziren zamaturik. Just in time. Gero, ametsan, nonbait, kotxeak martxan jartzen zituzten, atmosfera «desagertzeko arriskuan dagoen espeziea» izendatzen bait zuten NBEk, eta nire herrian oso ongi bizirik zirela langileak eta kapitalistak txinatar kutsatzaila nazkagarrietan kaka egiten zuten irudimenean, batez ere txinatar Mendillorri bat ez baizik eta txina guztia Mendillorri ikaragarri bat zela entzuterakoan. Txinako famili bakoitzak kotxe bat ez baizik eta bi zituztela jakiterakoan. NBEk, txinaren erruagatik, kutsadura 300% haundiatu zela baieztatzerakoan.

Adiskideok, erlojuak jo du, garaia da, etorkizuna aldatzeko neurriak behar ditugu. Gaur, orain. Hau da: «Just in time». Hau esan nion bildutako jende uholdeari. Beraiek banku baten gainean, beste askok bezala, zegoen gazte ilxil bat besterik ikusi ez zuten arren. Kuriositatez ea zenbat jende ote zegoen pentsatzen ari nintzela ematen bait zuten. Ahoa diskurtso guztian ireki ez nuenez oso ongi engainatu nituen. ●

Lizarra ●

# Frai Diegoren bizitzari buruzko liburuxka, kalean

1524. urtean jaioa, fraile frantziskotar hau Felipe II.aren teologoa izan zen

**Almudi Kultur Elkarteak Lizarrako Frai Diego fraile frantziskotarraren irudia eta bizitza jakinaraztea helburu duen liburuxka argitaratu berri du.**

**B**ERTAN AIPATZEN DENEZ, FRAI Diego 1524. urtean jaio zen Lizarrako San Cristobal Jauregian —gaur egun Kultur Etxea den eraikinean—. Salamancan egin zituen gero teologia ikasketak.

Almudi Kultur Elkartearen ekimenez idatzi den liburuxka hau Nafarroako Gobernuaren eta Lizarrako Udalaren diru laguntzarekin eman da argitara. Aurrekontua 475.000 pezetakoa izan da. Nafarroako Gobernuak ordaindu du diru horren %70, eta Lizarrako Udalak jarri du gainontzeko %30a.

Orotara, Lizarrako Frai Diego Kultur Etxea izenburua daraman liburuxkaren 5.000 ale argitaratu dira; horietatik, 3.500 gaztelaniaz idatziak dira, eta bertze 1.500, berriak, euskaraz.

Frai Diego Lizarrako San Cristobal jauregian jaio zen 1524. urtean, garai hartako hiriarren gunea zen la Rúa kalean, alegia. Hamarka seme-alabako familia baten bigarren semea izan zen. Aita, Don Diego de San Cristobal y Euguia zuen; ama, berriz, Doña María

Cruzat y Jasso. Lehenengo Gaztelakoa eta bigarrena, nafarra, biak izen handiko familiakoak ziren.

Frai Diegok teologia ikasketak burutu zitue Salamancan, eta Fray Luis de Leon eta Francisco de Vitoria ezagutu zituen. 1565 eta 1569. urte bitartean, Felipe II.a erregearen gortean aritu zen lanean predikari, kontsultari eta teologo gisa. Hala ere, istiluak izan zituen: Frai Diegoren ustetan, erregearen gortek dirutza handia erabili zuten El Escorial jauregia eraikitzeko. Halaber, Jesusko Santa Teresarekin harremana izan zuela aipatzen da.

Jesus Llanos Garcia eta Gregoria Diaz Ereño historialariak izan dira liburuxka honen egileak. Bertan frantziskotarraren bizitzaren inguruko aipamenak jasotzen dira, lehenengo eta behin, eta bera jaio zen etxearen inguruko datuak gero.

Jesus Llanosen hitzetan, Frai Diego bere garaiko predikari onenarikoa izan zen, eta argitarapen hau bere irudiaren eta bizitzaren berri emateko aukera ezin hobea da. Llanosek frailearen datu bibliografikoak bildu ditu liburuxkaren aurreneko partean. Ostean, Gregoria Diaz Ereño San Cristobal jauregiaren ikerketa egin du. Eraikina, XVI. mendekoa da, Berpizkundekoa, eta bertan, Frai Diego izena daraman Kultur Etxea dago kokatua gaur egun. Argitalpena bertan dago salgai.

→ Kristina Berasain



1524. urtean jaio zen Frai Diego fraile frantziskotarra, Lizarran.

● SONIA SALSAMENDI

### herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Poskonea, gutxituendako lantegia Elizondon

**Ttipi-ttapa** aldizkariak azken zenbakiak Poskonea lantegiaren berri ematen du erreportariari eskainitako tartean, Aitor Arozenak idatzi artikulua bere bidez: «Lantegi berezia da Elizondoko Poskonea. 30 lagun ari dira lanean eta horietatik 21 guttiti sikiakoak dira, 3 guttiti fisikoak eta gainerakoak profesionalak. Helburu nagusia, pertsona hauek lan munduan eta gizartean integratzea da, baina edozein lantegik bete beharreko baldintzak atzundu gabe (produktuen kalitatea, prezioen konpetitibitatea...). Iaz 53 milioi pezetako fakturazioa izan zuten Poskoneak, Tasubinsa! Nafarroan dituen hamar lantegien artean ttikienetakoa eta bereziena den honek».

«Lau arlotan banatzen dira Tasubinsa -Poskoneako langileak. Gehienak industria arloan ari dira, Poskonean bertan: Enplegu Zentru Bereziko hameka lagun, Okupazio Zentruko

bortzak eta bi profesional egun osoz eta bertzea egun erdiz. Hemen enpresa ezberdinendako produktuak egiten dituzte. Lorezaintza arloan zortzi lagun ari dira, obra ttikien arloan hiru eta arraultze salmentan pertsona bakarra».

**Ttipi-ttapa**-k jasotako artikuluan, Poskoneako zuzendari Salvador Sobrinok lantegiaren hastapenak gogoratzen ditu: «1981ean Baztango ANFASek Enplegu Zentru Berezia sortu zuten Poskonean. Honek, Hezkuntza Bereziko taldeari segida eman zion, garai hartan ez baitzegoen horrelakorik Hezkuntza Publikoan. Beraz, lehenbizi eskola eta gero lana eman zitzaion. Zortzi neskekin hasi ginen. Izan ere, mutilak etxean lanean gelditzen ziren. Baserria erosi eta baztandar aunitzen auzolanari esker moldatu zen. 1989an Tasubinsa-Poskonea izatera pasatu ginen, Nafarroako Gobernu eta ANFASen akordio baten bidez».

**Egunkaria**

### KOMERTZIAL BAT

behar da PUBLIZITATE SALMENTAN aritzeko IRUÑERRIAN.

ESKAINIKO DA: - Lan kontratua.  
- Soldata finkoa + komisioa.

BALORATUKO DA: - Eskarmentua antzeko lanetan.  
- Eskualdean bizitzea eta autoa izatea.  
- EGUNKARIA ezagutzea.

Interesatuok deitu Andoaingo egoitzara  
943-300222 telefonora apirilaren 6a arte.



# Karrikak bideak zirenekoa

Nafarroako azken mendeko historia beren auzoan gertatutako bidez isladatu nahi dute sanduzelaitarrek

Lehendik bere auzoan antzeztutako muntaia berbera eskainiko dute Sanduzelaiko auzokideek, bihar, Kasedako enparantzan, Nafarroa Oinezen kanpainaren barruan antolatutako ekitaldian. 150 lagun baino gehiago ariko da, giro onean, afizioa baino ez den antzerkiak gozatuz eta gozaraziz.

Lanean ez, baina kontutan bai arituko direla Inaxio eta Maritxu, antzezlan osoan. Txispaz eta umorez beteriko elkarrizketak errepasatuko ditu Raulek, taularatu baino lehen. «Oso garrantzitsuak dira elkarrizketak», dio Raulek, «alde batek jendeari historia ulertzen laguntzeko, eta besteak, jendeari ongi pasarazteko». Jantzia ere, aukerarako egokia den bat jarri beharko du. Jendea giroan murgiltzen laguntzeko nahitaezko faktorea baita jantziarena. Argaren bazterretako arropa garbitzaileen papera duten neskatokoe ere, soineko polit askoak jarriko dituzte. Txaleko ilunak, ostea, mutikoeak, artzainen rolean sartzeko.

Beronika Ferreiraren begiradapean, musikariek emango dute, bihar, lehenengo pausoa. Muntaiaren osoan zehar entzungo den musikak aspaldikoaren antza izango du, inolaz ere. Hain Nafarroakoak diren jotak ere ez dira faltako. Jota historikoak izango dira, doinuari dagokionez behintzat. XIX. mendeko bi jota eskainiko dira antzezlanean barruan. Haietako bat Valeriano Ordoñezek berreskuratu du, eta, ustez behintat, Iruñeko jotarik zaharrena da.

Musikarien arioren dantzatu beharko dute dantzari taldekoek. Haien artean izango da Mikel Picallo. Bederatzi urte ditu Mikelek, eta, bere laguntxoekin batera, jolas orduan bezainbeste gozaten omen du antzeppen honetan. Sandra Gomezek, txikiaren koordinatzaileak, bihar agortuko du geratzen zaien pazientzia apurra. Botafumeiroarekin azalduko da prozesioaren eszena, baina hori txikiak kontrolatzeko aitzakia bat baino ez omen da. Izan ere, prozesioaren eszena ugarietako bat baino ez da. Guztiek, bata bestearekin loturik, garai batean Zandua (gaur egun, Sanduzelai) zenaren historia azalduko dute; bide batez, Nafarroa osora zabal daitekeen historia.

## Sanduzelaiko ermitara eginko azken erromeria

1794 zenebaidun txartela izango da, gerora etorriko diren ugarietatik, lehen. Urte horretan ospatu baitzen, azkeneko, Sanduzelaiko ermitarako erromeria. Izan ere, urte horretan bertan suntsitu


HIRU AUTOBUS ALOkatu dituzte sanduzelaitarrek biharko. Izan ere, ia-ia berrehun pertsona mugiarazteko, beharrezkoak dira hirurak ere. Lehen, goizean goiz abiatuko da, eszenatokia eta gainerantzekoak prestatzen hasteko. Beste biak, eguerdi partean irteko dira. Talde artistikoa osatzen duten lagunak izango dira bigarren txanda horretan Kasedara iritsiko direnak. Urduri, seguruenik, 17:00etan hasiko dena gain-gainean ikusiko baitute ordurako. Dena den, oraingoa ez da taularatu diren lehenengo aldia, eta horrek lasaitasun pittin bat ere emango die. Urtarrilean, bere auzoan antzeztu zuten lan hau, lehenengo, jende aurrean, eta arrakastatsua suertatu zen emanaldia. Dena behar bezela irten zen. Beraz, oraingoa ere, zergatik ez, «amateur» hauek borobilduko dute iparraldeko pastoralen antzeko lan hau.

Beharbada, urte hasierako saio hartan izandako korapilo berbera jarriko zaio ezarrian Raul Serranori. Gazte beltzaren eta lerdin honek Inaxio errotariaren papera betetzen du *Zandua 1800: karrikak behin bideak izan ziren* lan honetan. Inaxiok, bere emazte Maritxuren laguntzaz, ibilaldi luze bati ekiten dio muntaiaren hasieran. Denboran zehar eginko ibilaldia, inondik ere. Biurdanako errotaren arduradunak ziren Inaxio eta Maritxu. Denboraren iraganaren lekuko izan zen, eta baden errota honek, xarma berezia du auzokideentzat. Martxan ezagutu zuenik inor gutxi gertatzen da jadanik, baina auzolagunen ilusioari eta ahalginei esker, berriro hasiko da lanean bihar.



Musika, dantza eta antzerkia uzartzen dira muntai honetan.

ALBERTO JAUREGI



## Elkarteen arte elkartasuna

Sanduzelai, Iruñeko auzorik ezezagunena eta arragoena dela diote bertakoek. Auzoarekin zerikusirik ez duten zenbait gai direla eta, izen txarra ere izan omen du sarritan. Baina hori aldatzeko prest dira sanduzelaitarrek. Horren adierazgarri, esaterako, *Zandua 1800: Karrikak behin bideak izan ziren* izeneko muntaiaren hau. Guztira hamaika elkarte hartu dute parte antolakuntzan: auzoko dantzarien elkarte, txistulariarena, txalapartari txikiarena, auzoko erraldoiak, Leningradoko akordeolariak, Aizeako gaiteroak, Adardunak, Umetxea Sanduzelakoak, Dinbili Danbala, parrokia eta Txokoa elkarteak. Egia esan, Kasedako musikariek ere hartzen dute parte muntaiaren. Hain zuzen ere, herriko eta oro har Nafarroako historia azaltzeaz gain, horixe zen muntaiaren helburu nagusia, muntaiaren koordinatzaile nagusia den Alberto Jauregik dioenez.

baitzuten eliztxoa, Iruñeko harrisetatik kanpo zeuden beste zenbait erailkinekin batera. Frantziako iraultzako armada zetorren, eta haiek utzitako herentzia horixe izan zen: gure ondarearen deuseztapena. Desertzioarena eta objektzioarena gaur goizeko kontuak ez direnez, orduan derrigorrez armak hartu behar izan zituzten hainbat gazte nafar nor bere herrira itzuli ziren, nekazaritza lanetan

«Aitzaki horrekin, guztiak bateratu nahi genituzten eta gazteak, eta uste dutigula. Berrehundik gora laguntzen dute parte lan honetan, denbetez, ia familia guztietan zenbat muntaiarekin lotura. Albertoren esanetan, oso hartzen zuten auzoan antzeppen haineko ideiak, baina trabak ere izan dituzte. Arazo nagusia, lokala izan omen dute. «Entsezu aproposik ez genuen», dio «Umetxea txikia geratu zitzaizkion berenbetez, Txokoa elkartearen zuzenaren erailkinean entsezu izan dugu, hauek ere leku oso onetan izan arren». Dena den, auzo horiek, denon arteko elkarteak eta ilusio pila bati esker gaur egun, eta horren emaitza bihar izango da Kasedan.

Antolakuntza neketsua izan omen da, berrehun lagun inguru koordinatzea ez baita ahuntzaren gauerdiko ezutla, baina elkarte bakoitzak bere gain hartu zuen hasieratik alorren bat, eta, bakoitza bere atalean, txukun ibili dira orain arte. Kontuan hartzeko da, elizako auroroek eta Kasedako musikariak izan ezlik, gainerantzekoan ez zirela orain arte sekulan ibili jende aurreko emaldietan. Baina erakutsitako abilezia ikusi ondoren, agian aurki ikusiko ditugu antzele handi eta sonatuekin batera. Garai batean Zandua zen lurraldean gaur egun Sanduzelai dago, eta garai batean zanduarrek zirenak sanduzelaitarrek dira orain. Beñak argi dute zer diren, eta argi utzi nahi dute nor diren eta nor izan ziren Iruñeko auzo honetako bibilagunak.

armadan baino beharrezkoagoak zirelakoan. Dena den, garai hartako iruineemek ez zuten armak hartzeko inongo obligaziorik. Iruñeko orduko udalak bere laguntza ematen zien, eta hiriko lege zaharrak beteazten zituen: Iruñeko semeen erantzukizun bakarra hiriaren defentsa zen, ez zuten gainontzeko herrialderik zertan defendaturik.

## Iparraldeko geltokiaren eraikuntza

Nafarroako erresuma zaharra Espainiako autonomia bilakatu zuen gerrate karlistaren ondoren, baretasuna eta lasaitasuna bihurtu ziren berriro, aspaldiko partez, nafarren eguneroko bizitzaren ardatz. Ekonomiak ere gora egin zuen, eta modernitatearen lehen urratsak hasi ziren. Modernitate hori, trenez etorri zen Iruñera ere. Horretarako, geltoki berriak beharrezkoak ziren, eta Belaskoaingo bidearen iparraldean, Lozakoaren mendebaldean, lur sail egoki bat bazenez, hantxe eraiki zuten Iparraldeko Geltokia. Sanduzelai eta Errotapea uzartzen ditu, harrez geroztik, geltokiak. Uzartari sendoa da, inondik ere, gaur egun, oraindik, harreman onak baitira bi auzoen artekoak. Morroien jaiaren ospakizuna da horren adierazgarrietako bat.

## Gerrate karlista, berriro: 1876

Berriro ere iruindarren eta inguruko bizimodu lasaia hautsiko zuen gerrate karlistak Iparraldeko Geltokia deuseztu egin zuen. Lasaitasunerako astirik ez zegoen arren, *Zandua 1800* lanean, urte horien barruan antzeppen dute arrantzaile arteko bazkaria. Udaleko ordezkariekin bazkaldu ostean, Arga ibaiarenertzetik paseatzen ziren herritarak, ibaiaren, arraien, eta inguruko guztia berri emateko. Bazkari horrek hurrengo egunean izaten zuen jarraipena, hamaiketako oparo bat egiten baitzuten. Orduan ere, herritar gehienek hartzen zuten parte.

## Ameriketarako emigrazioa: 1882

Hiritan zabalduko lan eskasiak, jabetzaren aldatetako eta gerra ondorengo miseria, nahiko arrazoak izan ziren, batzuentzat, ama lurra utzi eta Ameriketara zortea probatzeko. Bestalde, nafarrak jadanik soldaduzkara joan behar zuten derrigorrez, eta garai hartan Espainiaren eta Filipinen arteko gerratea zegoenez, gerrara joan behar zuten.

Inposatutako betebeharrak hori ihes egindakoak ere asko izan ziren, Atlantiko itxasoa zeharkaturik. Garai berriak ziren, inondik ere, eta berriak ziren garai lantzeko erabil zitezkeen sistemak ere, Urteetan Argaren hegoaldekoertzetik Zandua hain ongi zaindu zuten Biurdanako errotak, ordurako, ez zuten zentzurik. 1882an egin zuten lan, azkeneko, Maritxu eta Inaxiok. Errotarekin batera, zortizarrez, beste gauza batzuk ere desagertu ziren. Horien artean, euskara. Hizkuntza ofiziala gaztelania zela eta, gaur egun tinko dirauten trabak ezarri zitzaizkion euskarari. Euskaldunen indarrak baino sendoagoak ziren traba horiek, nonbait, eta euskaraz egiten zuten iruindarrak isildu egin ziren.



## Frantziarren aurkako gerratea: 1813

Gerra eta tiro hotzez beterikoa izan zen, inondik ere, XIX. mendea. Gatazka armatu horietako lehenena, 1813an gertatutakoan, frantziarrak ziren etsaiak. Frantziako imperioaren armadak bere esku zuten Nafarroako hiriburua, eta horrenbestez, asko ziren Espoz eta Minaren dibisioan sartu ziren bertako gazteak. Ondorioz, ugari izan ziren fusilatutako mutilak ere. Gaur egungo La Granja institutuaren etxe zaharrea, Pinuen Etxea izenekoa ezarri zen: frantziarren kuartela eta hilerria zen hura. Gerrillariak ez zuten arazorik Arga ibai zeharkatu eta handik hona ibiltzeko. Milutzeko zubia eraiketa izan zen bere ekintzarik garrantzitsuenak. Ingelesak eta portugaldarrek Santa Luziako mendikaxkoan ezarri zituzten beren kanoiak. Handik eraso zioten hiriburuari, eta hantxetik suntsitu zuten Santa Luziako ermita ere.

Gehienbat gazteak izan arren, adin guztietakoek hartzen dute parte.

ALBERTO JAUREGI

Urko Aristi



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Juan P. Esteban Txabarria

**Campión aitagoiak aitzinatzen zuen idazle aldraren partaide hau, Fustiñanako historiaren zertzeladak eskeini ezeze, Cervantesen On Quijotek nafar bideak zapaldu zituela frogatzen gorki ahalegindu zitzaigun**

**J**UAN PASCUAL ESTEBAN TXABARRIA Barde-mugako Fustiñan sortu zen 1864.eko martxoaren 27an -aurreko ostiralean, beraz, jaio zeneko 134. urteurrena genuen-. Lehenengo ikasketak Tuterako Castel-Ruizen eta Iruñean burutu zituen, abokatu agiria ordea, Zaragozan atzeman zuen 1885.era. Estebanek gogoan zeukan iharduera idazgintza genuen baina, eta hamahiru urterekin jada, bere lehenbiziko lana zirriboratu zigun, *Fragmentos históricos o breve reseña histórica de la villa de Fustiñana*. Lehenengo idazki hau *El ideal de Fustiñana* egunkarian atalka hasi zen agertzen *Fustiñana en la historia* goiburupean, baina paper hau desagertu zenean, bete gabeko lanaren arduraria hiriko udalak hartu zuen bere gain, eta berandu arren, Zaragozako La Académica tipografian agertarazi zuen 1930. ean *Memorias históricas de Fustiñana* izenburu aldatuarekin.

Zaragozako ikasketak bukatu, luma dantzazteari lagatu barik, Iruñeko *El Eco de Navarra* egunkari politikoan urtebetez ihardun zuen zuzendaritza lanetan. Ordutik, bizitza osoan zehar jarraitu zuen kazetari lanetan murgildurik, Iruñeko, Tuterako, Madrilgo nahiz Zaragozako egunkarietara bere izkribuak igorri zituelarik. Aurretik ere, 1887.eko udan, *La Concordia* egunkaria ateratzeko asmoz ibili zen Fustiñan bertan, horretarako beharrezko zituen molde eramangarriak erosiz, eta *El Carlismo en Navarra* izenburuko ikerketa xaloa karrikatatzeko ere profintatu zituenak.

Urte batzuk beranduxeago, 1893. ean hain zuzen, *Esbozos y moralejas o colección de fruslerías, nimiedades y bagatelas de grueso espesor* ipuin bilduma interesgarria agertarazi zuen Iruñean. Urte haixetan izan zen gamazadaren inguruko oihartzunak ez zitzaizkion ohar-kabea pasatu, eta legegizona zenez bezanbatean, zenbait lan



ondu zuen Nafarroako eskubi-deak mintzagai. 1894. ean Donostian eginiko lore jokoetara, *Vis unita fortior: forma de organizarse los basco-navarros para alcanzar la reintegración de sus derechos, constituyéndose agrupación común* izenburu luze baino argigarriaren azpian eginiko lana aurkeztu zuen, zilarrezko domina erdietsi zuela eta Bilboko Euskalerrria elkarteak argitaratuz; hurrengo urtean, berriz, Iruñeko *El liberal navarro*-ren foiletotigisa, *Paz y Fueros* hitz-lauko lana eman zuen argitara, XIV. mendean kokaturiko hiru ekin-tzako entsegu historiko dramatikoa, zendu berria zen bere amari eskeini ziona.

Mende berriarekin, eta 1904.etik bederen, *La Avalancha* aldizkari kristau integristaren lantzean behingo kolaboratzailea izan zen. Esaterako, Sautu eta Ibarretxebea josilagunek 1908. ean Erriberan eginiko misioaldi apostolikoaren berri eman zuen, eta 1911.eko maiatzaren 8ko zenbakian, *La mora encantada* ipuina atera zuen. Antso Abarkako gazteluaren zein birjinaren inguruko gertakizunak oregarri. Honetan ere *Quijote*-ren kontua agertu zuen. Iruñeko udalak 1905.eko maiatzaren 8rako antolatu X. literatur lehiketa osatzen zuen gaitegiaren barruan, gaietariko bat, eta Cervantesen lanaren mendeurrena zela eta, *Don Quijote y Sancho Panza, en sus viajes ¿Pisaron tierra navarra?* epigrafearen azpikoanikoa izan

zen; honetara, berriz, lan bakoitza aurkeztu zen, *Don Quijote en la Ribera de Navarra* izenburukoa, bakarra izanagatik, omen zuen kalitatea zela eta saritu zutena, gure Estebanena zena alegia. Ez zen argitara eman ordukoan, harik eta 1907.eko *La Avalancha* aldizkarian agertu zen arte. *La Avalancha*-n agerturikoa ez zen sariketara igorri ber lana, Estebanek kopiari egiteko arta izan ez baitzuen, eta aurretik eginiko zirriborroetan oinarrituriko testu berria izan zen orriotarutakoa; ez dirudi, halaz ere, argitaratutakoak Iruñeko udalean aurkezturikoarekin gehixegi hastanduko zenik. Aurretik ere, gai honek kitzikatzen omen zuen gure Fustiñanako idazlea, izan ere *Cervantes, Navarra, Tudela* izenburupean artikulua saila argitara eman baitzuen *El Eco de Navarra* egunkarian, 1904.eko apirilaren 24an eta maiatzaren 3an. Honetan, Iruñeko ikas-bulta digu gogora, ikasle txarra zeneko garaia, noiz Cervantesen lana irentsi baitzuen gormandiza handiz; penaturik Cervantesek bere idazkian Nafarroa aipatzen ez zuelako, on *Quijote* Nafarroatik bai pasatu zela erakusteko saioa egin zuen, erdal testuan sakonki treratu ostean.

Azken urteetan Aragoira gerturatu zitzaigun, noizbait urrutiratu bazen -Zaragozan zendu zen 1940.eko uztailaren 6an-. 1918.eko martxoaren 23an, Zaragozako ateneoan *Regionalismo general y aragonés orientados por el régimen foral de Navarra* hitzaldia ogutzi zuen. 1927. ean eta 1929. ean, berriz, Nafarroako aldundiak, Euskalerrriaren Alde elkartearen eskutik, *Utrínque roditur* eta *Aragón por Navarra contra Francia* lanak saritu zituzkion; lehendabizikoan Nafarroako konkistan Aragoik izan zituen erantzukizunak zehazten dira, bigarrenean, aitzitik, 1638.eko Hondarribiko setioan aragoitarrek izan zuten parte hartzea aztertu zuen.

## etorri ahalean

Patziku Perurena

### Nere Garrido bihotzekoa

**N**ERE BIHOTZAK ERE BARDU Antonio Garridotik zerbait. Neure burua beti zerbaiten esperoan ikusten dut, baina esperantzaren loreak pozoitu egiten nau. Bien bitartean neure gizaeraz, damutu egiten naiz, edo mendekurik gaiztoenak asmatzen.

Gizaera, nortasuna, nork bere baitan daraman demonioak moldetzen baitu. Baina, zer egin lezake, egungo gizartean, sabelean denomio zoragarri bat sortu zaionak, kasik inguru guzira aingeru zuri totalitarista aspergarri baten alde jarri denean? mundu guziaz nere (bere?) demonio gaiztoa aingeru txintxo mozorrotu nahi duela ikustean? Mundu guziaz aingeru onbera dela erakutsi nahi duenean?

*«Tienes un caracter que ya no se estila, o sea, igual que todos, pero no lo sabes disimular como ellos»*. Zori gaitzagorik! Ez. Nik ez daukat neure burua zintzo eta jatortzat. Baina ikusten dut jendea berekoi amorratua dela. Inork ez dizula zinez laguntzen, inork ezin duzula hartu zinezko laguntzat. Izan ere, nola hartu aingeru bat laguntako? goardatiko? Ez, ni ez naiz, horren inozentea, ez dut federik nere arima hegatu ezin duten aingeru disekatuatan.

Horregatik, kizkali eginen nindukete euskaldun jator askok. Ez naute sentitzen, ukitzen, fantasma hegaldun izaki, baina desterratu eginen nindukete pozik beren gogotik. Gehiko maite naute; beren sabelean neure hutsa sumatuko balute bezala; ausentzia ikaragarri baten sintoma; maitemina, jakina baita, irudimenaren hutsegiterik larriena dela. Erruki ditut, gorroto ustean maitemina didaten faltsu horiek.

Baina, gorriena, oker ez nabilela seko sinisturik egotea da, neure burua ezin gainatua. Ikusten dut mundua, mila logos berri ergel sortuz progresatzen doala, eta gure herrixka euskaldun mixerable hau ere horren inbidiz galtzera doala, eta min

dut bihotzonko zaimetaraino, eta lurak urritzen ari zaizkit mina enterratzeko.

Ez pentsa, beraz, iluso hutsa naizenik. Hala banintz hobe. Krisialdi batean zalantzan jarri, eta neure buruari galde egiteko: *teatro euskano absurdo honen montajeak ez ote du hiretzako aproposa den paperik? posible ote da 'rara avis' bakarra hi izatea?* Ez ez. Eta ezetz pentsatzen dudan bakoitzean, Euskal Herri osoa sutu, eta Leitzara aldegitoko gogoak ematen dit.

*«...y si la ley y la razón no pueden domar el corazón?»*. Mendeku hutsetik bizi den jendajea, zinez mixerablea da ordea, eta oraindik mixerableagoa, pozik eginen lituzken mila mendeku izugarri ezin burutuz gogobihotzetan pilatzen zaizkiona. Halakoa bai gizaseme hondatua. Halakoa bai, ni, zu, ah! zu ez, barkatu, Garridoz ari naiz.

Eta zergatik ez daki euskaraz Antonio Garridok? Nik ententzen dut inork baino hobeki. Euskaraz ezin dira idatzi mendeku konkretuak; egin egin behar dira; ijitoen moduan ixilpean eta gauez gainera, bestela ez lirake euskal usarioko. Eta ijitoak ez dizu bere ekintza zakurreraz deus esanen. Kanta, dantza, bertsoa eta negar musika besterik ez dizu adierazten jendaurrean: euskal folklorea.

Eta ez al da faltsua, euskaraz gorrotatu ezin den Euskal Herri euskalduna? Euskal Herrian euskarazko *Itun Berri* honetan zergatik ez da infernuri agertzen. Eta euskaraz infernuri posible ez bada, zertako, zertatik, salbata nahi gaituzte euskaraz? *«¿Qué es más falso, partir de un paraíso, o querer volver a él?»*. Berdin da neretzako, gerra absurdo bat zuentzako.

Erlijioraino makurtu naiz, eta ixiltzera noa. Gezur polit batzuk esan dizkizut, eta bale. Urragariena, halare, beste guzietan baino dotoreago gezur esaten dutela ikustea da. Motzak esana baitu nere kontsolamendurako: *«Ez haiz gauza gezurra bezain eder esateko egia»*.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Barrenak hustu

**E**Z ASPALDI, KARTZELAREN INGURUKO LARRAINAK ZIRKOEN PAUSALEKUZiren. Zinez ederra, ispluen epaitegian muntatu diguten zirkoa. Alperrik ari dira, benetako erabakia Cordovillan hartu zen, eta pailasok Logroñon jaso zuten epaia. Hamar izenena iragana da. Oraingo ikuskizunak batzuen barrenak hustutzeko besterik ez du balio, gainera itzalaren marka ez duten hauei ez zaie elkartasun keinurik falta. Itzala bakar batzuen *pribilegioa* omen da.



# Marcos Andres Vierge Musika irakaslea

## «Errepertorio laburra baina emankorra da Rematxarena»

**Fernando Rematxa musika konposatzaile tuterarra jaio zen mendeurrena dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dira haren omenez. Marcos Andresek egindako tesia argitaratzea izan da haietako bat. Horrela, historian zehar baztertua eta ahaztua izan den musikari horren lana ezagutu ahal izango da.**

**H**ITZ JARIO HANDIKOA DA MARCOS Andres. Gaia gustuko duelako, beharbada. Baina bere jarduna entzun ondoren, badirudi Fernando Rematxa anaia dela. Tesia burutzeko erabilitako ordu guztiek eman dute bere emaitza, inondik ere. Udazken aldera argitaratuko denaren aurrerapeña eskaini zigun Marcosek.

### ■ Nolako da Fernando Rematxaren musika?

Haren musika ez da oso herrikoa. Nahiko elitista da bere musika mota, aditu gutxi batzuek bakarrik uler dezaketena. Fernando Rematxarentzat, musikaren alderdirik garrantzitsuenak adierazkortasuna zen. Adierazkorrak da bere lana, baina, era berean, nahiko zurrumbilotsua gertatzen da zenbaitetan, bai konposizioaren aldetik, bai entzumeneren aldetik. Gainera, oso elementu intelektualak ditu. Behin eta berriz pentsatutako konposizioak dira. Bat-batekotasunik ez da kasik haren lanetan. Hori horrela izanik, bere partituren irakurketa nahiko zaila egiten zaio edozein musikariri.

### ■ Oparoa izan al zen Rematxaren sorlana?

Ez oso oparoa. Errepertorio laburra baina emankorra du. Espainian XX. mendean sortu diren lanik garrantzitsuenetakoak dira berak egindako batzuk. Aipatzekoa da hiru Sari Nazional jaso zituztela: bi lehenak aretoko orkestrarentzat sortutako lanengatik jaso zituen, eta hirugarrena, berriz, bizitza osoko lana gorai patuz.

Koral musikaren atalean ere ekarpen handiak egin ditu. Dena den, niri gehien gustatzen zaizkidan lanak zinemarako egindakoak dira. Badute xarma berezi bat. Madrilgo ekoiztetxe batentzat

### sos la ia

Marcos Andres Vierge hogeita hamabi urteko iruindarra dugu. Zizur Nagusian bizi da emaztearekin. Pablo Sarasate kontserbatorioan egiten du lan,

musikaren historia eta analisisiko klaseak ematen dituela. Afizioa lan bihurturik, zoriontsu bizi omen da. Tesia bukatu du eta pozik da, lan txukuna geratu zaiolakoan.

Bere heziketa guztia humanitateen alorrean eman du. Gai horiek omen gehien gustatzen zaizkionak, eta interesgarrien iruditzen zaizkionak. Gitarra praktikoaren titulu nagusia du, eta musikan doktorea da. Haren ikasleek diotenez, klaseak atsegin bihurtzen omen ditu, gustura ari dela garbi utziz.

Egun guztian musikaz inguraturik dagoenez, aisialdian ia ez du musikarik entzuten.

Konposatzaileena du gustuko. Zinemako soinu bandak ere atsegin zaizkio. Musikari bat aukeratzekotan, Erbo Part aukeratu luke, new age musikagilea. Musika munduan dihardutenek Johan Sebastian Bach dotrinatzen izan behar luketela uste du.

Dena den, Queenen musika ere entzun ohi du.



● MIKEL SAIZ

egin zituen horiek, eta, gerrak harrapatu izan ez balu, urrutira iritsi zitekeen.

Dena den, berezko ezkortasuna zela eta, ez zion musika konposaketari behar duen denbora guztia eskaini. Gero, ezkortasun hori gainditu ondoren, Iruñeko Pablo Sarasate kontserbatorioaren zuzendaritza hartu zuen bere gain, eta lan horrek denbora asko kendu zion. Dena den, garai hartan ere egin zuen lan garrantzitsurik: kontuan hartzekoa da musika pedagogiaren alde urte haietan egindako lana. Iruñeko eta Alacantekoak izan ziren, Espainia guztian, musika erakusteko erarik berritzaileenak ezarri zituzten kontserbatorio bakarrak.

### ■ Hura izan zuen, beharbada, garairik oparoena?

Garairik oparoenak Erroman eta Madrilen emandakoak dira. Espainiako hiriburuan Lorca eta garai hartako beste zenbait artistarekin izandako harremanek eragin handia dute bere lanean, ideologikoki batez ere. Dena den, lagun horiek errepublikanoak zi-

«Zorte txarreko gizona izan zen Fernando Rematxa. Hortik hain berea zuen ezkortasuna»



liarengana. Gaur egun oraindik zabalik dagoen bere senitartekoen burdindegian hasi zen lanean. Pentsa, musikari batentzat, ez dela beharbada lanbiderik egokiena, eta lehendik nahiko triste zebilena are tristeago geratu zen. Eta ezkortasun hori atzematen da bere lanetan.

### ■ Rematxaren lana zein beste konposatzailearekin alderatu daiteke?

Nafarroako gainontzeko konposatzaileekin parekatzerik ez dago. Bere garaikide bakarra Garcia Leoz da, eta hark oso musika desberdina landu izan zuen. Beharbada, erreferentziarik garbiena italiarrena da, Madrilgo lagunarekin batera.

### ■ Zein da bere lanik aipagarriena?

rela eta Rematxa ere errepublikaren aldekoa zen zurrumurrua zabaldu zen, eta horrek atek itxi zizkion. Zorte txarrekoa izan da beti Fernando Rematxa. Gerra ostean, Espainiatik alde egin asmo zuen, baina azkenean Tuterara itzuli zen, bere familiarengana.

Batenbat aipatzekotan, *La cantata a Jesucristo en la cruz* izeneko aipatuko nuke, bere lanen ezaugarri guztiak biltzen baititu. 1964. urtean estreinatu zenean, nahikoa harridura sortu zuen orduko adituen artean, nahiko berritzailea zelako, baina hala ere arrakastatsua suertatu zen.

### ■ Nahikoa ezaguna al du jendeak Rematxaren lana?

Ez gehiegi. Orain arte editatu gabe zegoenez, ezin zen bere lana behar bezela ezagutzera eman. Hemen ez dugu behar bezala estimatzen, eta nazioartean ere ez gehiegi. Dena den, zenbait saialdi egin dira Rematxaren izena behar den lekuan uzteko. Esate baterako, Iruñeko koral abesbatzak lan ugari egin du bere abestiak ezagutzera ematen. Orain ere, bere jaiotzaren mendeurrena dela eta, badira zenbait saialdi. Dena den, inoiz argitaratu gabeko abestiak ere badira oraindik. Horregatik aukeratu nuen, hain zuzen ere, autore hau, nahiko ezezaguna zelako. Eta behin lan sakon bat egiten hasita, hobe azken muturreraino heldzea. Orain, zerbaitetarako balioko ahal du behintzat.

→ Urko Aristi



## BEKARIO!

patxi@earthling.net



## Nafar Kronika

Pello Goñi

### Aurora

**A**URORAREN AZKEN BALADAK, 40 Printzipaletan sartu berri den Murray Head-en bertsiio horrek, orotzaren aunitz ekartzen dit gogora, abestiarengatik nahiz abeslariarengatik. Aurora Iruñeko Txino-an mugitzen zen fauna bitxi hartakoa zen. Denbora hartan Txino bat izandu baitzen Iruñean, Karmen, Nabarrerria, Kurla eta Kaldereria karriek osatzen duten alderdi horretan. Nik azpiauzo ttipi horren gainean daukadan orotzaren urrutiena alderdi hori lumpen samarra zenekoa da. Orduan El 10 tabernan, esate baterako, lau puta, mozkor batzuk eta droga salzailerren bat besterik ez zegoen.

Laster gauzak aldatuko ziren, rockeroago bilakatu ziren Alde Zaharreko karrika haiek. Horrekin batera, Lou Reed-en izpirituak alderdi osoa ziprztindu zuen eta jendea zaldia-ren atzaparretan erori eta hiltzen hasi zen. Garai hartan, Aurora bideak urratzen saiatzen zen Belladona emakumezko taldearen eskutik: Txino hartan jaio zen amodiozko gau hura. Gero taldea desegin, kontu txarrak hain seguru, eta nor bere aldetik joan zen. Bakarlarri gisa ikusi nuen lehenbiziko aldian Gotorlekuko areto batean izan zen. Han agertu zen, zuri-zuria, Rock and rollaren Amabirjina balitz bezala, bakar-bakarrik, bere gitarren laguntza hutsarekin. Ene orotzaren agudo pasatu zen irudi malder hartatik ospera. Garai hartakoa ere dugu orain bertsiionatu duen balada, baina nik beste giro bati lotzen diot. Murray Head-en abesti harekin helduta dantzatzaren ginateke eta bestetako zurrakapoteetan, helduta baino gehiago bat eginda, bero-bero. Egia esan, balada hori ez zen askotan Txino-an aditzen, nik bederen ez nuen behin ere aditu, auzoko fijo horietakoa ez banintzen ere. Txino-ko giroa latzagoa zen musika eta hainbat gauzaren aldetik. Jakin nahi nuke nik non aditzen zuen Aurorak abesti hura. Guateketan edo zurrakapoteetan berak ere? Hala bada, pena da han kointziditu ez izana.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Iruña:** Jabier Muguruzak bere azken diskoaren lanak abestuko ditu astelehenean, 20:00etan, Erraldoien Txokoan.
- **Tutera:** PiLT taldea ariko da herriko kiroldegian, bihar, 21:00etatik aurrera.
- **Burlata:** Asteartean, 20:30etatik aurrera, Cuervo Jack taldearen emanaldia izango da Black Rose tabernan.
- **Iruña:** Asteazkenean, Jazz Session Band taldeak kontzertua eskainiko du Garazi tabernan. 22:30etan hasiko da ekitaldi hau.

### ZINEMA

- **Iruña:** Karrikiri elkarteak antolatutako zinematoko egitarauaren barruan @Marius eta Jeannette eskainiko da gaur Golem zinematokian 20:00etan. Sarrerak 450 pezeta balio du. Aurretik *Raztelen itzulera* pantailaratuko da.
- **Tafalla:** «Haurrentzako zinema» izeneko kanpainaren barruan, *Mowgli y Baloo* filma eskainiko da asteburu honetan Cinema Español aretoan. 100 pezeta izango da sarrera.

### ERAKUSKETAK

- **Iruña:** Pintzel Galerian, gaurtik hasi eta hilaren 25a bitartean, Jokin Manzanos Garaioa margolariaren lanak dira ikusgai.
- **Antsoain:** Nafarroako basoei buruzko erakusketa zabadu da Udal Igerilekuetan. Nafarroako Aurrezki Kutxak antolatuta, beste zenbait herritan izan da lehenago.
- **Zizur Nagusia:** Elkartasunaren astea dela eta, artisautza erakusketa asteburu guztian, udaletxeko kultur aretoan.

### BESTELAKOAK

- **Iruña:** AHTren Aurkako Asanbladak antolatutako, sagardotegi bihurtuko da gaur gaztetxea. 600 pezetaren truke, sagardoa, ogia, parrila eta egurra izango da. Haragia norberak ipini beharko du. Zortzietan hasiko den afaria, eta Furundarena trikitilaria ariko da.
- **Txantrea:** Euskal Herria ekologikoa eraikiz hitzaldia eman-

go da gaur, 20:00etan, Auzotegi Kultur Etxean, Eguzki taldeko Alberto Friasek.

- **Elizondo:** Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala izango da igandean, 17:00etatik aurrera, herriko pilotalekuan. Bertan, zortzi bertsolari, zein baino zein hobea.
- **Larraun:** Nafarroako Kirol Elkartearen Mendi Eskolak antolatutako, mendi ibilaldi bat izango da igandean. Guardetxetik abiatuta, Ttu-

tturre mendira igoko dira mendizaleak, gero berriro Lekunberrira bueltatzeko. Informazioa, Jarauta kaleko 78. zenbakiko bulegoan.

- **Iruña:** HBK antolatutako *Gure historia ezagutuz* jardunaldien beste ekitaldi bat izango da asteazkenean. *Papel del frente obrero de ETA en los 60 y 70* izeneko hitzaldia eman- go du Justo de la Cuevakan, 19:30etatik aurrera, Aitzina Herriko Tabernan.

## Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



Oh bidelagun maitea! Jakin ezazu nire sos guztiak akitu nituela loterian, primitiban, itsuetan, txanpon-jaleetan, eta portuan barrena doan errepide hau nire kontura egin zutela. Orain miseria gorrian bizi naiz, baina nire ezbeharrek balio izan dute.

Nafarroako Errepide Sarea